

Ehiztari-biltzaileak



ARITZ GALARRAGA

Zalantza izpirik ez dago, ordea, literatura pixka bat irakurri dutenen artean bederen, Alice Zeniter idazleak baieztatzen duen honen inguruan: “sexu desberdintasun arazo handi bat dago kontakizunetan”. Alegia, eta grosso modo, gizonetzko pertsonaia, zer esanik ez protagonista askoz, baina askoz gehiago dagoela literatura kontakizunetan, emakumezkoak baino. Literaturaren hasieretatik, ulertzen da, Aristotelesekin esaten baitzuen *Poetika*-n, brotxa lodia erabilia berriz, istorio on bat, gauzak, preferenteki gauza biolentoak egiten dituen gizonetzko nabarmengarri baten istorioa dela. Zeniter: “Istorio on bat, gaur egunean oraindik, hori da maiz, gauzatxoak egiten dituen tipo baten istorioa”.

Je suis une fille sans histoire izeneko liburuan esaten ditu halakoak, eta, ondorioz, istorio mota bat pribilegiatzearekin, beste istorio batzuk, bestelakoak, baztertu izan direla historian zehar, isilarazi. Giza espeziearen lehen pausoei buruzkoak, adibidez, irudikatzen baita historiaurrean, kobazuloen garaian, denak zirela ehiztari. Ursula Le Guinek galdetzen du nola gure zibilizazio ehiztari-biltzailea bilakatu ahal izan den soilik ehiztarietz hitz egiten duten kontakizunen abaro, haragiak elikaduraren zati txiki bat baino hartzen ez bazuen –kalkulatzen da gizakien elikagaien %65-80 zela, ez ehizatu, baizik eta bildutako jaki-. Zeniter, berriz: “ehiztarien istorioak entzutearen penderioz, ahaztu ditugu biltzaileak, eta bizi-haragi ekuazio modu bat osatu dugu, zeina ez den inondik inora elikagaien balio nutricionalen ondorio, kontakizunen forma seduzitzaileena baino”.

“Ezin dut gehiago ehiztarien kontakizunetz, gauzak egiten dituzten gizon nabarmengarriet”. Bat nator. Ehiztariak bakarrik ez, biltzaileak ere izan zirelako, are ehiztari-biltzaileak, eta ez bat ez beste izan zirenak, edo ezin zutenak, alde edo moldez isilaraziak guztiak. Den-denek dute lekua kontakizunetan. ●

ERRAUSKAILURIK EZ,
AHT-RIK EZ,
URDAIBAIKO
GUGGENHEIMIK EZ,
SUPERSURRIK EZ,
FRAKINGIK EZ..
...BAINA ZERTAN NAHI
DUTE DIRUA XAHUTU
DEZAGUN, ORDUAN!?



ADUR

Ikusmena

Braillea euskaraz irakurri eta idazteko lehen metodoa aurkeztu dute. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailak “Puntuuka” metodoa aurkeztu du: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako materiala da, bai tintaz bai Braillez, eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (CREENA) Ikusmen Taldeak egin du.

Datuak

Echo aparailuekin zuri entzundakoa beste batzuei saltzen die Amazonek. Informatikari talde batek ikerketa argitaratu du: ahots aginduei erantzuten dieten aparailuek entzun egiten zaituzte, horren arabera zure jarraipena egiteko, baina ustez ziurtatzen duten baldintza bat hautsiz: beste batzuei pasatzen dizkiete datuok.

Presoak

32 urte ondoren, prokuradorearentzat “goiz” da Ion Parot askatzeko. Joan den astean, Ion Paroten alde galdetutako 6. baldintzapeko askatasun eskaera aztertu du Terrorismoaren Aurkako Parisko auzitegiak eta, espero bezala, prokuradorea kontra agertu da, bere ustez preso ateratzeko goiz dela argudiatuta.